

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Klusterrak sustatzeko laguntza berriak eskatzeko epea irailaren 1era arte ireki da

Nafarroako Gobernuak 225.000 euro bideratuko du enpresa, teknologia-zentro eta unibertsitateen arteko lankidetzaren sortzeko eskualdeko lehiakortasuna handitzeko bide gisa

Astelehena, 2016.eko ekainak 20

Astelehen honetako (ekainak 20) Nafarroako Aldizkari Ofizialak Garapen Ekonomikorako Departamentuak abian jarritako laguntzen lerro berria [argitaratu](#) du honako xede honekin: enpresa, teknologia-zentro eta prestakuntza-zentro publiko edo pribatuen arteko lankidetzaren finkatu eta sustatzea eskualdeko lehiakortasuna nahiz berrikuntza handitzeko bide gisa. 255.000 euro bideratuko dira, eta aurkezteko epea irailaren 1ean amaituko da.

[Kluster, aurrekluster eta enpresen lankidetzako proiektuetako gastuetarako](#) diru-laguntza lau onuradun-motari zuzenduta dago: jadanik sortutako klusterrei, osatze fasean dauden beste batzuei, lankidetzaren proiektuak abian jartzen ari direnei eta, azkenik, Foru Komunitatetik at kokatutako klusterrekin bat egiteko beharra duten enpresei.

"Klusterra sortzeko" A lerroak azaroaren 15a baino lehen erakunde berri laguntzaileak osatzeko jarduerak diruz lagunduko ditu (plan estrategikoak, dinamizazioa eta osatzea). 16.000 euro emango da gehienez eskaera bakoitzeko.

Klusterra funtzionatzeko B lerroak kudeaketa-egitura babestuko du (bazkideak bereganatzea, lan-mahaiak, taldeko kudeaketa, ordezkaritza, proiektuak hautematea), plan estrategikoak eguneratzea, marketin eta komunikazioko ekintzak eta aholkularitza nahiz prestakuntzako zerbitzuak. 40.000 euroko diru-laguntza emango da gehienez eskaera bakoitzeko.

C lerroa enpresen ahalmen berritzailea eta lehiakortasuna indartzeko da lankidetzako proiektuak sustatzeko, eta honako hauen alde egiteko: bazkideen arteko lankidetzaren (produktuen edo zerbitzuen dibertsifikazioa, I+G+B), klusterreko zerbitzu estrategikoak, enpresako spin-off sortzea... 40.000 euro da gehieneko diru-laguntza.

Azkenik, D lerroak, Nafarroakoak ez diren klusterretara egindako atxikitzearekin lotuta, produktu eta merkatuen lehiakortasun, berrikuntza edota dibertsifikazioa hobetzen laguntzen duten erakundeekin bat egitea erraztu nahi du. Nafarroako Gobernuak kuota diruz lagunduko du, gehienez 1.000 euroekin.

Lerro bakoitzeko laguntza bat eskatu ahal da soilik. Deialdian lerro bakoitzean diruz lagundu daitezkeen gastu-motak eta -mugak zehazten dira, eta baita laguntzen intentsitatea ere, proiektuaren finkatze nahiz

motaren arabera dagoena. Klusterraren sorreraren lehen faseetan intentsitatea handiagoa da.

RIS3

Ebaluazioa banaka egingo da, eta babes finantzarioa ekimenek Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak (RIS3-Navarra) lehenetsitako arlo ekonomikoetan duten kokapenaren arabera izango da, hiru ardatzen baitan batzen direnak: osasunaren ekonomia, ekonomia berdea eta talentuaren ekonomia.

Proposamenen balorazioan Sodena sozietate publikoarekin batera Gobernuak Nafarroako Gobernuako klusterren politikan duen egokitzapena kontuan hartuko du, eta egoera hori oinarrietan zehaztuko da; haren barnean sartzen dira ondorengo faktoreak: berritzeko eta nazioartekotzeko gaitasuna, azpiegitura eta zerbitzu partekatuak sortzea, epe ertainerako errentagarritasuna, autofinantzaketa, inportazioen ordez Nafarroan eskaintzen diren produktuak eta zerbitzuak sustatzeko politika, eskualdez gaindiko sareetan parte hartzea, prestakuntzaren aldeko apustua...

Beste gai gatzuk ere baloratuko dira, adibidez: klusterren ordezkariak (kideak, enplegua, fakturazioa...), unibertsitate edo teknologia-zentroetako kudeaketan dagoen partaidetza eta hazkundearen ahala.

Merkatuko hutsuneak betetzea

Espezializazio adimentsuaren Europako strategiaren barnean "klusterrak" sortzeko eta indartzeko babesa ematea dago merkatuko hutsune batzuen ondorioak arintzeko bide gisa (tamaina eta koordinazioko arazoak), eta enpresei beraien artean harremanak izateko aukera ematea ezagutza eta berrikuntzako fluxuak ezartzeko, eta behar besteko masa kritikoa lortzeko jarduera berritzaileak egite aldera; hala, haien lehiakortasuna eta nazioartekotzea hobetu ahalko dira.

Klustertzat jotzen da gune geografiko batean enpresak eta ikerketa eta prestakuntzako zentro publiko edo pribatuak nahasten direnean, laguntza-trukerako prozesuetan aktiboki parte hartzen dutenak, eta izaera berritzailea duten baterako proiektuak egikaritzetik sortutako abantaila nahiz irabaziak lortzeko asmoa dutenak, merkatu objektiboko merkatu edo segmentu baten inguruan, edo erreferentziazko adar edo sektore zientifiko baten inguruan.